

TALDE SOZIALISTAK IRUNGO ESKOLA GARRAIO ZERBITZUAREN INGURUAN AURKEZTUTAKO MOZIOA

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politika sailarena da Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako ikasleentzako eskola garraio zerbitzuei dagozkien arauak jartzeko eta zerbitzu horien kontratazioa kudeatzeko eskumena, ikasle guztiek hezkuntza jasotzeko aukera dutela bermatzearen.

Jarriak dauden irizpideak hauexek dira:

- Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publiko batean matrikulatuta egotea.
- Ikastetxearen eragin-eremuaren barruan bizitzea.

Etxetik ikastetxeraino tartek 2 kilometrotik gorakoa izan behar du Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Lehen Zikloan; eta 4 kilometrokoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Bigarren Zikloan.

Orain artean, Eusko Jaurlaritzan izan diren Hezkuntza sailek mantendu egin dituzte zerbitzuak, gutxieneko baldintza guztiak zorrotz-zorrotz ez beteagatik ere; hau da, nolabaiteko malgutasunez jokatu dute, udal eta eskola bakoitzeko testuinguru eta arazo espezifikoetara egokituz. Esan behar da “malgutasun” hori aparteko zorrotasun bilakatzen joan dela azkenaldian eta ematen ziren zerbitzuetako batzuk murrizten joan direla.

Ulertzen dugunaren arabera hau da **CEIP Txingudi Irungo Ikastola HLHI eta IES Txingudi BHI ikastetxeari** dagokionez datorren ikasturterako eskola garraioaren aurreikuspenaren kasua.

Zehaztu behar da Udalak ez duela erabaki horietan parte hartu, horien inguruan kontsultatu ere ez zaiola egin. Besterik gabe, horien berri eman zaiola.

Udalak **gestioak egin ditu Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzan** eskolatzeko-garaian baldintzak betetzen dituzten **ikasleentzako garraio zerbitzua mantentze dadin**, kontuan harturik 2010ean zonifikazio aldaketa bat izan zela eta jatorriz zonifikaziotik kanpo ez zeuden ikasleentzako batzuk orain horretatik kanpo geratu direla. Udalak gestioak egin ditu, halaber, ikasle horien anai-arrebek ere zerbitzu horixe bera jasotzeko aukera izan dezaten.

Bi kasuetan ere Hezkuntza Ordezkaritzaren erantzuna baiezkoa izan da hasiera batean, baina, ez dirudi ondoren ikasle horiek Ikastolara joan daitezela bermatzeko benetako neurri eraginkorretan mamitu denik. Hori horrela, ikastetxeen bidez nahiz guraso taldeen bidez eskola garraio zerbitzuen murrizketaren aurrean dagoen kezkaren berri heldu zaigu.

Irungo Udala lehendik arduratzen da bi ikastetxeetara iristeko gaiarekin lotutako kontu askoz; ardura hori, batzuetan, bere udal lurretan jardunez gauzatu du; eta beste batzuetan Hondarribiko Udalarekin sinatutako hitzarmenen bidez (adibidez, ikastetxe horietara joateko espaloia egin zenean); beste batzuetan, berriz, beste administrazio batzuei dagozkien arloetan jarduteko eskatuz (Hondarribiko Udala bera, Eusko Jaurlaritza, Ura, eta abar).

Uda honetan ikastetxeek eta Guraso Elkarteak eskatuta Udal honek zuzenean gauzatutako bi jarduketa amaituko dira:

- Ikastetxeko sarreretara erosotasunez iristen lagunduko duen espaloi bat luzatzea Jaizubia Hiribidean
- Hiriko L1- Zaisa-Ospitalea linea ikastetxeetako sarreretaraino eramatea; horrek zera eskatuko du, autobusarentzat baztergune berri bat egin beharko dela Ikastolarako sarreran eta Ospitaleko autobusaren geltokia birmoldatu egin beharko dela. Era berean, Udalak aurrera jarraituko du oinezkoen irisgarritasuna hobetzeko konpromisoarekin.

Hori horrela, bi ikastetxeekin lanean ari gara, linea horren antolaketa egokia izan dadin ikasturtearen hasierarako.

Horren guztiaren aurrean, **Irungo Udalak zera eskatzen dio Hezkuntza, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari:**

- **Kontuan izan dezala mintzaigai ditugun bi ikastetxe hauek duten testuingurua eta egoera berezia, eta jarrai dezala Irunen lehengo eskola garraio zerbitzu berak ematen.**